

*Mindegi iraunkorra*

## **Prestakuntzarako ihardunbideak - Elkarrekin lotu**

*Joanba Bergara*

*Irakasleen prestakuntzarako saioetan anitz dira inputa edo edukiak lantzeko eskura ditugun prozedurak. "Prestakuntzarako ihardunbideak" izenpean ZUTABE argitara ematen ari den lantxoan bidez, prozedura zenbaitekin aprobak egiteko egokiera eskaini nahi zaizu. Bildumako laugarrena da oraingoa.*

### **Sarrera**

Ez ote du merezi, aldizka bederen, geure prestakuntzarako saioetan euskara-ikasleei egin arazten dizkiegun zenbait ariketaz baliatzeak? Bai, ezbairik gabe, nere aburuz. Horrexegatik, aurrekoetan bezala, oraingoan ere uste horren haritik, mindegi berri hau beste teknika bat jorratzera dago emana, *Elkarrekin lotu* deritzana. Mindegiotan, dakizunez, irakasprozedura heuristikoez baliatuz, esperientzi bidez eta aurkikuntzak geure kabuz eginez bultzatu nahi dugu ikastera geure burua. Eta ez bakarka, lana taldean eginez baino. Taldea lanean iharduteko euskarri finko eta sendo gerta bait daiteke, alde batetik; eta aurkikuntz bide aparta, bestetik. Gogoratu, azkenik, bilduma honetan funtsezko aztergaia zenbait teknika edo prozeduraren "azalpena egitea" bada ere, halabeharrez bestelako eduki-sorta bati ere helduko diogula, glotodidaktikako berezko ezagutza-bildumari alegia. Eta banan-banan jorratzen ari garen teknika edo prozedurak, katebegiak besterik ez direla, eta prestakuntzarako saioetan elkarri lotu beharko dizkiogula, behar bezala lotu ere.

**Mindegia  
bideratzeko  
iradokizunak**

- 1 Hainbat hizkuntz ariketatako elementua dugu “elkarrekin lotu” eragiketa. Ziur zeuk ere behin baino gehiagotan egin erazi diezula zure ikasleei mota honetako ariketaren bat. Bete .1 fitxa; ostean lankideekin bildu eta emaitzak alderatu.
- 2 Beste hainbat arlotan bezala, glotodidaktikakoan ere hiztegi ezpezialdu zabal bezain aberatsa dugu, euskararen irakaskuntzan aritzen direnek ezagutu beharrekoa. Irakurmen-alorrari gagozkiola, zenbat hitz datozkizu gogora? Ahalik eta hitz gehien idatzi. Gero lankideekin bildu eta eman elkarri emaitzen berri. Horrekin bat, ahal denean behintzat, hitz horien esanahia azaldu.
- 3 *Auto-testa*  
Egin .2 fitxa. Bukatutakoan, bildu lankideekin eta emaitzak alderatu.
- 4 Alderatu 2 unean osaturiko zerrenda .1 fitxakoarekin eta ondorioak atera.
- 5 *Hizkuntz eduki berrien aurkezpen-uneak*  
Egin .3 fitxa. Bukatu ostean, lankideekin bildu eta emaitzak alderatu.
- 6 *Hausnarketa*  
Egin .4 fitxa. Amaitu ondoren, eta talde osoan, emaitzak alderatu.
- 7 *Zuek zeuek sortu*  
“Elkarrekin lotu” ariketa sortzeko aukera duzu orain. Launaka burutu egitekoa; edo binaka, lagun asko izan ezean. Laukote/bikote bakoitzak arlo (topiko) bat jorratuko du; ezberdina bada, askozaz hobeto.  
  
Taldea bakoitzak .2 edo .3 fitxen tankerako ariketa prestatu behar du aukeratutako gaiaren inguruan. Egitekoa burututakoan, taldeek elkartrukatu egingo dituzte prestatutako fitxak eta bertoko ariketak burutuko.

.1:

Zerrendatu ezkerreko zutabearen “elkarrekin lotu” eragiketa ezaugarri duten adibide zenbait; ez nolana hikoak, zeuk erabilitakoak baino. Eta eskuintzekoan azaldu zertarako erabili dituzun.

“Elkarrekin lotu” ariketak	Zertarako

.2:  
Auto-testa

Irakurmenari buruzko testa duzu hau, bi atalez osatua (**A** eta **B**). Saiatu bi atalak elkarrekin lotzen.

**A atala**

Adierazi eskuinaldeko zutabeen hitz bakoitzari dagokion **B** ataleko azalpe-naren zenbakia.

1	Irakurgarritasuna		23	Pasiboa	
2	Isila		24	Sortzailea	
3	Irakurlea		25	Aktiboa	
4	Gramatikak		26	Irakurmen-hiztegia	
5	Irakurketa		27	Irakurbidezkoa	
6	Xehea		28	Sinpleak	
7	Luzerak		29	Itzulpena	
8	Kopuruak		30	Ahozko hizkera	
9	Ozena		31	Material-mota	
10	Gainetikakoa		32	Xedea	
11	Irakurgaia		33	Ulermen-maila	
12	Irakurmena		34	Trebetasunak	
13	Lasterra		35	Mantsoa	
14	Mailakatua		36	Normala	
15	Irakurtze-ariketa		37	Azkarra	
16	Irakurketa-laborategia		38	Ona	
17	Estentsiboa		39	Regresioa	
18	Intentsiboa		40	Hitzez hitzezkoa	
19	Irakurketazkoa		41	Inferentziala	
20	Ulertze-ariketa		42	Motzak	
21	Hartzekoa		43	Balioespenezkoa	
22	Hartzailea		44	Kritiko edo ebaluatiboa	

- 1 Informazio-elementu jakin bat ahalik eta lasterren aurkitzeko, testuaren gainetik egiten den begibistaren iraganaldia; adibidez, zerranda batean telefono-zenbaki bat bilatzeko, tren-ordutegian hurrengo trenaren irteera-ordua bilatzeko edo hitz bat hiztegiari bilatzeko egiten den irakurketa.
- 2 Irakurtzeko prestatutako materiala.
- 3 Idatzizkoaren ulermena lantzeko ariketa.
- 4 Irakurmena helburu nagusi duen metodoan, xede-hizkuntza generalean pasarte ... dituen testu bidez sartzen da.
- 5 Irakurmena helburu nagusi duen metodoan, xede-hizkuntza generalean egitura ... dituen testu bidez sartzen da.
- 6 Idatzitako material batek irakurria eta ulertua izateko duen erraztasunaren graduan faktore askok du eragina; honako hauek, besteak beste: pasarteko perpausek duten batezbesteko...
- 7 Xehetasun osoz egiten den testu aski laburren irakurketa, erabat ulertuz eta are analizatuz.
- 8 Irakurmena helburu nagusi duen metodoan, ... irakasten denean, normalean irakurmena indartzeko erabiltzen da eta testua ozenki irakurtzera mugatzen da.
- 9 Pertsona batek ulertzen duen hiztegia.
- 10 Idatzitakoa ulertuz ala ulertu gabe, inork entzuteko eran egiten den irakurketa.
- 11 Nola deritza hizkuntz adierazpenerako beharrezkoa den trebetasunari?
- 12 Irakurketaren abiada faktore zenbaiten baitan dago; honakoarenean, besteak beste: ... (esaterako, fikzioa/ez-fikzioa).
- 13 Argi ageri ez den informazioa bilatzeko irakurle-eskarmetuekin eta intuizioaren bidez egiten den irakurketa.
- 14 Idatzitako material batek irakurria eta ulertua izateko duen erraztasunaren gradua.
- 15 Nola deritza hizkuntzaren ulerkuntzarako beharrezkoa den trebetasunari?
- 16 Irakurketaren abiada faktore zenbaiten baitan dago; honakoarenean, besteak beste: irakurlearen ... (esaterako, informazio jaso, pasarteko ideia nagusiaren berri jakin).
- 17 Jatorrizko hitz baten hiztegi ... 100.000 hitz ingurukoa izaten da.
- 18 Idatzizkoaren ulermena.
- 19 Nola deritza ondorengo helburuak lortu nahi dituen irakurketa-ri?
  - Irakurtzen denaren gutxi gorabeherako ulerkuntza lortzea;
  - irakurketa-aztura onak garatzea;
  - hiztegiari eta egiturari buruzko ezagutza hobetzea;
  - irakurketarako zaletasuna handitzea.
- 20 Pertsona batek irakurtzen ari den bitartean uler dezakeen hitz-multzoa.
- 21 Irakurtzen dena ahoskatu gabe egiten den irakurketa.
- 22 15 atalekoaren sinonimoa.
- 23 Irakurketaren abiada faktore zenbaiten baitan dago; honakoarenean, besteak beste: behar den ... (esaterako, ideia nagusiak jaso edo gauzak beren osoan ulertu).
- 24 Begiek jadanik irakurritakora egiten duten mugimendua.
- 25 Irakurtzeko ekintza.

- 26 11 atalekoaren sinonimoa.
- 27 Irakurmena helburu nagusi duen programa edo metodoa.
- 28 Jatorrizko hiztun baten hiztegi ... 10.000-20.000 hitz bitartekoa izaten da.
- 29 Irakurleak pasarte bateko ideia nagusiez jabetu nahi duenean, hala nola artikulugilea tesi baten alde ala kontra dagoen jakin nahi duenean, azkar egiten duen irakurketa.
- 30 Hizkuntza ulertzearekin, eta ez ekoiztearekin, zuzenean lotu-tako iharduera.
- 31 Hauxe dugu irakurketako abiadura tipikoenetariko bat.
- 32 Nola deritzo pertsona batek erabiltzen duen hiztegiari?
- 33 Idatzitako material batek irakurria eta ulertua izateko duen erraztasunaren graduan faktore askok du eragina; honakoak, besteak beste: pasarteak duen hitz berrien ...
- 34 Ulermena lantzeko iharduera.
- 35 Hauxe dugu irakurketako abiadura tipikoenetariko bat.
- 36 Nolakoa da ezaugarri hauek dituen abiadura:
  - minutuko 200-300 hitz,
  - %80-90 ulermena?
- 37 Irakurtzen dena ulertzeko trebetasuna.
- 38 Irakurtzeko pasarte-bilduma, pasarte bakoitza fitxa batean dagoelarik, feedbacka egiteko zenbait bitartekorekin batera, hala nola ulerkuntza egiaztatzeko galdera batzuekin eta fitxen erabileran zehar ikasleak egiten duen aurrerapenari buruzko xehetasunak jasotzeko fitxategi batekin.
- 39 Hauxe dugu irakurketako abiadura tipikoenetariko bat.
- 40 Nolakoa da ezaugarri hauek dituen abiadura:
  - minutuko 250-500 hitz,
  - %70 ulermena?
- 41 Nola esaten zaio irakurtzen duenari?
- 42 Ikasleak hizkuntza zenbateraino menderatzen duen jakiteko egiten duen probetako bat. Ikasleari 30 hitzetik 100 hitzera bitarteko luzera duen testu bat ematen zaio irakur dezan, eta bertan agertzen ez den zerbaitez erantzutea eskatzen duten galderak egiten zaizkio, ulertu duen ala ez egiaztatzeko.
- 43 Nolakoa izaten da ikasteko irakurketa, gaia zaila denean edota ulermen-maila altua eskatzen denean egiten dugun irakurketako abiadura?
- 44 Nolakoa da ezaugarri hauek dituen abiadura:
  - minutuko 800 hitz edo gehiago,
  - % 50 ulermena?
- 45 Nola deritzo edukiaren erdia inguru ulertuz eta 800 hitz minututik gorako abiaduraz egiten den irakurketari?
- 46 Irakurketaren abiada faktore zenbaiten baitan dago; honakoa-renean, besteak beste: irakurtzeko irakurleak dituen berezko ...
- 47 Zenbaitetan zirrara edo antzeko sentimenduren bat lortzeko irakurtzen dugu, helburu hori beste batzuen gaineratik nabarmentzen delarik. Nola deritzo ulermen-mota honi?
- 48 Hiztegi edota egitura gramatikalen multzo murriztua duen idatzizko testua.
- 49 Nolakoa izaten da eguneroko periodiko eta egunkariak dakarrenaz jabetzeko egiten dugun irakurketako abiadura?
- 50 Hainbatetan pasarteak dagoen informazioa ulertu, gogoan hartu edo gogora ekartzeko irakurtzen dugu. Nola esaten zaio ulermen-modu honi?

	<p><b>51</b> Idatzitako material batek irakurria eta ulertua izateko duen erraztasunaren graduan faktore askok du eragina; honakoak, besteak beste: erabilitako hizkeraren ...</p> <p><b>52</b> Zenbaitetan hauxe izaten da irakurlearen helburua: pasarteko informazioa bere balore eta ezagutzeekin erkatzea. Nola esaten zaio irakurtzeko modu honi?</p> <p><b>53</b> Irakurmena helburu nagusi duen metodoan ulermena ... eta analisi gramatikalaren bidez lantzen da.</p> <p><b>54</b> Nolakoa izaten da gainirakurketako abiadura? Kasuotan ulermena propio da apalagoa.</p> <p><b>55</b> Nola esaten zaio azkarrago irakurtzen irakasteko eta ulermen-maila altuagoa lortzeko erabiltzen den teknikari, irakurlea begi-mugimendu eraginkorragoak egitera eta beste ulerbide batzuk bilatzera eramaten duenari?</p>
--	---

*C atala*    **a.** *Azalpen-motak.*– Ipini ikurra ✓ *bai* esan nahi du) dagokion lekuan.


B ataleko azalpenak	Definizioen nolakoa				
	Sinonimoak	Antonimoak	Definizioak	Osatu beharrekoak	Eta beste (Zehaztu zer den.)
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					
11					
12					
13					
14					
15					
16					
17					
18					
19					
20					
21					
22					
23					
24					
25					
26					
27					
28					
29					

30					
31					
32					
33					
34					
35					
36					
37					
38					
39					
40					
41					
42					
43					
44					
45					
46					
47					
48					
49					
50					
51					
52					
53					
54					
55					

- b. Irakurri **B** ataleko **33.** azalpena. Zergatik ez da esan, zure ustez, "idatzitako material baten irakurgarritasuna" eta bai, ordea, "idatzitako material batek irakurria eta ulertua izateko duen erraztasunaren gradua"?
- c. Irakurri **B** ataleko **29.** azalpena. Zergatik ez esan "erabiltzen duen irakurketa lasterra" "azkar egiten den irakurketa"ren ordez?
- d. Azkenik, zer irizten diozu azterturiko hiztegiari? Badago egokitzat jotzen ez duzun hitz edota azalpenik? Zergatik?

3:  
Eduki berrien  
aurkezpen-uneak

Hona hemen hizkuntz eduki berriak aurkezteko dauden moduetariko bat azaltzen duen eskema:



Ondoren, eskuinean, urrats edo une bakoitzaren deskribapena egiten da, baina ez goiko eskeman duten segidan. Zein da zein, ba? Elkarrekin lotu uneen izenak deskribapenekin, deskribapen bakoitzari dagokion izena ezkerretara zutabean idatziz.

Aurkezpen-uneen izenak	Aurkezpen-uneen deskribapena
	<p>Lehenengo aldiz hartuko du ikasleak une honetan input ahozko edo idatzizkoa irakasle, zinta, irakurgai edota abarren bidez. Bestela esanda, eduki berriak entzun edota irakurri egingo ditu. Hala ere, baliteke zenbait ikaslek aipatu edukiekin lehenago topo egin edota ikasi izana. Ikasle hauentzako eduki horiek arrotzak izango ez direnez, komeni da, beste edozeren aurretik, input berria ikasle horien baitatik elizitzea.</p>
	<p>Testuinguruaren elementuak azaltzen zaizkio ikasleari (pertsonei inguruko zertzeladak, kokagune eta garrantziko den beste edozeren berri). Irakaslea ikusizkoen baliak daiteke testuinguru argiago zeratzeko. Hau guzti hau lagungarri gertatzen zaio ikasleari edukiak <i>nola</i> eta <i>noiz</i> diren erabilgarri ulertzeko.</p>
	<p>Ikasleari azaldu zaion inputa gogoan hartu eta bereganatzen laguntzeko, modu oso/nahiko kontrolatuan <i>esaldi-eredu</i> zenbait errepikatu eta praktikatu erazi egiten zaio. Beraz, Birproduktzioa une honetan ikasleak aurkeztu den/diren <i>esaldi-eredu</i>(k) irakasleak beharrezko derizkion hainbat aldiz errepikatuko du/ditu. Aurkeztu dena ikasleak buruz ikasi beharreko elkarriketa bada, berau ikastea izango da une honetako egin-beharrak. Esan beharrik ez dago <i>elizitzekoan</i> ikaslea errore eta oztoporik gabe aritu baldin bada, ez duela errepikan aritu beharrik. Ikasleak une hartan eragozpenak aurkitu bazituen edota errorearen batzuk egin, orain eduki berrietara jarri, finkatu eta erroreak zuzendu behar ditu. (HABE/ UZEI, 1988: 160)</p>
	<p>Irakasleak eduki berrien ezaugarri formalak nabarmendu egingo du orain, ahoskera barne, horretarako behar beste <i>esaldi-eredu</i>z baliatuz.</p>
	<p>Irakasleak emaniko ereduaren errepika soilean aritu beharrean, eduki berriekin testuinguru berrietan, aprobak egiteko egokiera du orain ikasleak, edukien aurkezpen-uneetatik aldentzeko ahaleginak eginenez, agian inolako laguntzarik gabe berak moldatu edo asmatutakoetan. Une honetan garbi egiaztatuko du irakasleak zein ikasleak azaldutako itemen <i>forma</i>, <i>esanahia</i> eta <i>erabilera</i> ulertuak izan diren ala ez diren.</p>



.4:

- a. Alderatu .2 eta .3 ariketak. Zein izan da eztabaidarako emankorrena? Eta zerk eragin du eztabaida?
- b. *Ariketen zailtasuna*.– Erraz burutu al dituzu bi ariketak? Zailtasunen batekin egin al duzu topo? Zehaztu zailtasun-iturri horiek zeintzuk izan diren.
- c. *.2 ariketa*.– Zer diozu **A** fitxako **13** eta **37**. hitzei buruz? Zeintzuk dira azalpen bati baino gehiagori egokitzen zaizkion hitzak? Zeintzuk dira erantzun bat baino gehiago onartzen duten **B** ataleko itemak?
- d. Zeintzuk dira zure aburuz .2 eta .3 ariketen arteko amankomuneko ezaugarriak eta zeintzuk bien arteko aldeak? Erantzunak taulan idatzi.

	.2 fitxa	.3 fitxa
Amankomuneko ezaugarriak		
Aldeak		

- e. *Prozesuari erreparatu*.– Erreparatu, une batez, bi ariketak egiterakoan zuk jarraitu prozesuari. Zergatik egin duzu bide hori?

## 8 Hausnarketa

- a. Zer-nolako gorabeherak izan dituzue 7 puntuko egitekoa burutzeko orduan?
- b. Zer irizten diozue teknikari? Gure prestakuntzarako balio ote du? Eta zer diozu teknikaren ekonomiaz\*?
- c. Noiz, noizero, norekin, zergatik eta zertarako erabili teknika? Inputa aurkezteko/ inputa lantzeko/ inputa birpasatzeko/ gai jakin baten in-

guruco ezagutza zenbaterainokoa den neurtu edo aztertze? Edota beste edozertarako?

9 *Aldaerak*

Mindegian jorraturiko teknikari ikutu zenbait emanez gero, litekeena da aldaera berriren bat aurkitzea. Horretan saiatu. Ostean lankideekin bildu eta aldaeren berri eman elkarri.

10 *Gaiak*

Zerrendatu teknika honen bidez zuen artean egoki azter daitezkeen gai batzuk eta eskura izan behar zenituzkeen baliabideak.

11 *Teknika euskara-ikasleekin*

Azkenik, zein egiteko gertatu zaizue errazago .3 eta .5 puntuetakoa ala 7koa? Zergatik? Ba al du horrek eraginik gure ikasleei begira, eskolan ere mindegian jorraturiko teknikaz behar bezala baliatzeko? Zeintzuk dira, zure ustez, teknika honi behar adina etekin ateratzeko kontuan hartu beharreko puntuak?

**Oharra**

\* Prestaketa eta antolaketan eginiko ahaleginen eta ariketari ateratako etekinaren arteko erlazioari deritzo *ekonomia*. Esaterako, prestaketan ahalegin handia egin ostean ariketari etekin gutxi atera bazaio, argi dago ariketa ez dela batere ekonomikoa izan. Baina prestake-

tan zein antolaketan ahalegin asko egin izan arren etekin handia atera zaion ariketa, aldiz, ekonomikotzat joko dugu edo ekonomiko samartzat.

**Aipua**

**HABE** eta **UZEL**. 1988. *Euskara-irakaslearen eskuliburua*. Donostia: HABE.